

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

2023 urteko zirkulazio-zergaren kobraketa

Jakinarazten dut: martxoaren 10etik apirilaren 10era arte, borondatezko epean kobratuko direla ordainarazpen hauen 2023. urteari dagozkion ordainagiriak:

– Ibilgailuen zirkulazio-zerga.

1. Ordainketa-epea:

Borondatezko epea: 2023ko martxoaren 10etik apirilaren 10era.

Premiamendu-aldia, ehuneko 5eko errekaruarekin, apirilaren 11tik apirilaren 25era arte, eta administrazio-premiamenduko betearazpen-prozedura adieraziko da, indarrean dagoen Zerga-bilketako Erregelamendu Orokorrean ezarritako xedapenekin bat etorriz.

2. Ordainketa egiteko lekua eta modua:

Banku-entitateetan helbideratutako ordainketak:

Aurreko urteetan ordainketa helbideratuta dutenek ez dute inolako kudeaketarik egin behar banku-helbideratzearen kontua mantentzen badute. Udala arduratuko da ordainketa izapidetzeaz.

Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuaren bidez helbideratuta ez dutenek borondatezko aldi zehar baino ezin izango dute egin Kutxabanken, Caixabanken edo Rural Kutxaren bulegoetan.

3. Gomendioak:

Banku-helbideratzeen altak edo aldaketak, bai eta helbide-aldaketak ere, hurrengo jakinarazpenetarako, Arratzua-Ubarrundiako Udalari bidali behar zaizkio.

Hala jakinarazten da, zabalkunde orokorra izan dezan.

Durana, 2023ko martxoaren 1ean

Alkatea

MARÍA BLANCA ANTÉPARA URIBE